

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2023ko uztailaren 27a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetexea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Iosu Lizarralde Ibarbia zinegotziak (EH Bildu) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2023ko uztailaren 5eko udalbatzarraren ezohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 6/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 7/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, hizkuntza-eskubideen aurkako epaiaren aurrean aurkeztutako mozioa.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2023KO UZTAILAREN 5EKO UDALBATZARRAREN EZOHICO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2023ko uztailaren 5eko ezohiko bilkurako akta.

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 6/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2023 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 33.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko uztailaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 6/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 33.000 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 7/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2023 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.369.157 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko uztailaren 21eko bilkuran egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil, guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 7/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.369.157 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela, joan den uztailaren 21ean egindako Barne Antolaketa batzordean emandako botoarekin bat etorritik, ez dutelako nahikoa denbora izan espedientearen edukia arretaz aztertzeko.

Ainara Munduate zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza, eta adierazten du kreditua aldatzeko espediente honetan sartutako partida gehienak aurreko udal-agintaldian aurreikusitako gastuak finantzatzeko direla, esate baterako, Orioko udal-kiroldegian inbertsio batzuk egiteko partida.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Udalaren 2023ko aurrekontu propioko inbertsio errealean 6. kapituluan jasotako partida gehienak «irekiak» izan zirela; hau da, hasieran 6 euroko zenbatekoarekin ireki ziren, gero Udalaren diruzaintzako gerakinaren kontura finantzatzeko asmotan. Partida horien artean hauek nabarmentzen ditu: joan den hiru hilabeteetan matxuratuta dagoen udal-kiroldegiko galdararako partida, skate-parkeko inbertsiotarako eta San Martin auzoko saneamendu-lanak finantzatzeko partida. 7/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen jasotako partida gehienak udal-bulego teknikoak proposatu ditu, lizitazio publikoak abian jartzeko; eta lizitazio horiek, gero, dagokion batzordean diktaminatu beharko dira.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN AURKAKO EPAIAREN AURREAN AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Udalbatzarrak EH Bildu eta EAJ talde politikoek batera aurkeztutako mozio-proposamenaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Orioko EH Bilduk eta EAJk aurkeztutako mozioa, hizkuntza-eskubideen aurkako epaiaren aurrean

Euskaalgintzako eragileekin batera Udaleko EH Bilduko eta EAJ-PNVko hautetsiok zera adierazi nahi dugu:

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezetsiz, emandako epaiak eragin digun kezka larriak ekarri gaitu idatzi hau aurkeztera.

Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztopoa jartzea delako, helburu horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu. Bide batez esan, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzen dituzten hizkuntza-politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2 artikulua berariaz jasotzen baitu berme hori.

Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain baliogabetutako Udal Legea. Era berean, azken Inkesta Soziolinguistikoa argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hori euskararen biziberritzearen aurkakoa ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan.

Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxiak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Epai honen ondoren, salaketa are eta irmoago egiten dugu: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde.

Era berean, bat egiten dugu oldarraldi honen aurka eta euskararen normalizazioaren eta biziberritzearen alde euskaalgintzako eragileek azaroaren 4an Bilbon antolatu duten manifestazioarekin, eta parte hartzeko deia egiten diegu Orioko herritarrei.

Orio, 2023ko uztailaren 21a.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA hizkuntza-eskubideen aurkako epaiaren aurrean EH Bildu eta EAJ talde politikoek batera aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,